

## **VIII. ERANSKINA**

**SEGURTASUNA SUTE KASUAN, SS**



## SEGURTASUNA SUTE KASUAN, SS

Donostiako Udaleko Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritzak Plan Berezi honen txostena egin du, eta hiru punturi buruzko dokumentazio osagarria eskatu du. Hona hemen hiru puntu horiek:

1.- Pablo Sarasate eta Otamendi Anaiak kaleen izkinan dagoen partzelara hurbiltzeko baldintzei eta haren inguruko baldintzei dagokienez, SS.5 ataleko 1.1 artikuluko baldintzak betetzen dira. Zehazki, Pablo Sarasate kaleak errodadurako 6 metroko zabalera librea du eta Otamendi Anaiak kaleak 3,70 metrokoa. Galibo librea 4,50 metrotik gorakoa da eta bi bideen sostengu ahalmena 20 kN/m<sup>2</sup>-tik gorakoa.

2.- Loiolako Erriberak eremua urbanizatzeko proiektuan aurreikusitako suteetako ur harguneak behar bezala egikarituta daude duela zenbait urtetatik; zehazki, Pablo Sarasate kaleko espaloian suteetako ur hargune bat dago Plan Berezi honen mende dagoen eraikinaren fatxadaren erdian gutxi gorabehera, beste bat Pablo Sarasate eta Otamendi Anaiak kaleen izkinan dago, partzelaren alakan, eta beste bat espaloian bertan, aurrekotik 18 metrotara. Horrenbestez, aditzera eman behar da soberan betetzen dela suteetako ur harguneen zuzkidura.

3.- Bere garaian aurkeztuko den eraikinaren eraikuntza proiektuak bete eta justifikatu beharko du Eraikingintzaren Kode Teknikoa - Oinarrizko Dokumentua – Suteetatik Babesteko Segurtasuna eta Erabileraren Segurtasuna eta Irisgarritasuna araudia.

- Eraikingintzaren Kode Teknikoa - Oinarrizko Dokumentua – Suteetatik Babesteko Segurtasuna, 5. atala Suhiltzaileen lana, bete beharko da. “1. Hurreratze baldintzak eta ingurunea” eta “2. Fatxadatik sartzea” artikulua bete beharko dira.
- Espaloian lurperatutako suteetako ur harguneen —San Sebastian ereduak— zuzkidura aurreikusi beharko da. Harguneen arteko distantzia maximoa ehun metrotik beherakoa izango da, espazio publikoetan neurtuta. Suteetako ur harguneak urez hornitzen dituen sare hidraulikoak ahalbidetu beharko du elkarren segidan dauden suteetako bi ur hargune bi orduz jarraian eta aldi berean

funtzionatzea, bakoitza minutuko 1.000 litroko emariarekin eta gutxienez 10 metroko ur zutabeko gutxieneko presioarekin.

- Gainera, eraikina eraikitzeke proiektuan justifikatu eta bete beharko dira Eraikingintzaren Kode Teknikoa - Oinarrizko Dokumentua – Suteetatik Babesteko Segurtasuna eta Erabileraren Segurtasuna eta Irisgarritasuna araudia.

Donostia, 2022ko urtarrila

Sin.: José M<sup>a</sup> Abad  
Letradua

Sin.: Jorge Tanco  
Arkitektoa

Sin.: Katrin Marrero  
Arkitektoa